

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

2018ko Ekonomia Jardueren gaineko Zerga arautuko duen udal ordenantza fiskalaren (5. ordenantza fiskala) aldakuntzaren behin-behineko onespena

Behin-behineko onespena eman zion Gasteizko Udaleko udalbatzak, 2017ko urriaren 27an egindako bilkuran, 2018ko Ekonomia Jardueren gaineko Zerga arautuko duen udal ordenantza fiskalaren (5. ordenantza fiskala) aldakuntzari —xedapen iragankorra gehitzea—.

Uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoaren ildotik, behin-behineko onespena eman zaion ordenantza fiskalaren testua San Martineko udal bulegoetan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - behea— jendaurrean egongo dela jakinarazten da, interesdu-nek aukera izan dezaten dosierra aztertu eta egokitzeak jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko, hogeita hamar eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunetik. Abenduaren 14an bukatuko da epe hori, eta, jendaurreko erakustaldia igarotzen delarik behin-behineko erabakiaren kontrako erreklamaziorik aurkeztu ez bada, behin betikotzat joko da.

Hemen ere eskuragarri dago www.vitoria-gasteiz.org/zergak.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko urriaren 27an

Ogasun Saileko Zinegotzi Ordezkaria
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO